

## MERKATARITZA EKINTZAIETZA SUTATZEKO DIRULAGUNTZAK

### HERNANIKO UDALA

#### ARRAZOIEN AZALPENA

Herrietako tokiko merkataritzak egiturazko gainbehera bizi du azkeneko hamarkada hauetan. Lehenik, hirietako aldirietan ireki ziren merkatalgune handien lehia sufritu du, eta azken urteotan, internet bidezko merkataritzaren hazkundeak ondorio zuzen eta bortitzak eragin ditu. Horrek herrietako paisaian eragin zuzena izan du eta gero eta gehiago dira itxita dauden merkataritza-lokalak.

Hernaniko merkataritza sektorea, bere kokapen geografikoak bereizten du, ez soilik gertutasun eta sarrera erraztasunagatik, baizik eta baita garraio publikoaren komunikazioagatik ere -trena eta autobusa-, hauek, udalerriko bizilagunen gastu ihesa errazten du. Gastu norako nagusi gisa hurrengoak azaltzen dira: Donostia eta kanpoaldeko merkataritza ekipamenduek eta merkatal guneak (Belartza, Hurbil eta Garbera).

Hala ere, Hernanik Merkataritza Erdi Gune definitua eta zabala du, Erdigunea eta Kaxkoa batzen baititu, udalerriko merkataritza erreferente historikoa, oinezkoentzako bidea edo Orkolaga eta Antziolako merkataritza eremu berriaren konexioa, izaera berritua eta modernoagoarekin. Hernanik, Merkataritza Erdi Gune zabala eta kalitate estandarrak gainditzen dituen du, -espaloi zabalak, oinezkoentzako bideak, eserleku eta plazak.

Bestalde, Hernanin ere, lokal hutsek, udalerriko merkataritza jarduerarentzat arazoa suposatzen dute. Udalak egindako azterketan oinarrituta, lehen solairuko lokalen ia 1/3 batek jarduera tertziariorik ez dutela identifikatu da, hau da, lokal hutsak termino zabaletan, merkataritza lokal hutsak, garajetako sarbideak, eta biltegiak direlako. Ondorioz, merkataritza lokal hutsak, identifikatutako lokal hutsten % 70 dira, Hernaniko tertziarioko fatxadaren % 22 suposatuz. Bost lokal bakoitzeko bat merkataritza lokal hutsa da. Merkataritza lokal hutsak, Kaxkoan biltzen dira, zehazki Kale Nagusi eta Andre kalean.

Horregatik, Hernaniko 2019ko Merkataritza Ekintza Planak lehenetsun gisa ezartzen du udalerriko lokal hutsten erabilera erraztea. Horrela, merkataritza inguruneke espazio publikoa zein lokal hutsten itxura eta erakargarritasuna hobetzeko asmoz, GUZTION programa abiatu zuten Beterri-Buruntza eskualdeko udalerriek. Programa horri lotuta, Hernaniko Udalak jarduera ekonomikoa eta enpleguaren sorrera sustatu nahi ditu, eta bereziki merkataritza jarduera sustatu nahi du, ekintzaileei lokal hutsetan jarduera ekonomiko bat ezartzen lagunduz nahiz ixterea doazen komertzioen erreleboa sustatuz. Dirulaguntza honen bidez, lokal horien alokairuen zati bat ordaintzen lagunduko du Udalak baita lokal horien erosketa diruz lagundu ere, hala badagokio. Era berean, proiektuak abiatzeko bestelako gastuak eta inbertsioak ere kontuan hartuko dira.

Publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen mesedetan, gardentasun-parametroen arabera, oinarri arautzaile hauek sustatzen dira, onuradun izan daitezkeen pertsonen artean ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten.

#### 1. artikulua. XEDEA

Oinarri hauen xedea da, Hernanin hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko zein ixter dauden negozioen eskualdatzeak sustatzeko dirulaguntzak emateko arau erregulatzailerak ezartzea.

#### 2. artikulua. ARAUDI ERREGULATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA

Dirulaguntza oinarri hauek Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, 887/2006 Errege Dekretuak, Hernaniko Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, dirulaguntzak emateko Erregelamenduak eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudiak arautzen dituzte.

Dirulaguntza emateko eskumena duen organoari dagokio oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen edozein zalantza ebaztea.

### **3. artikulua.- AURREKONTU-ZUZKIDURA**

Deialdi honetarako 50.000 euroko kreditua ezarri da 2024ko udal-aurrekontuko honako partidan: 1.02.471.02.431.00.2024 Dirulaguntzak-lokal hutsen alokairua.

Hernaniko Udalak dagoen aurrekontu-zuzkidura handitu ahal izango du, baldintzak betetzen dituzten eskabide gutxiei erantzun ahal izateko. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea.

### **4. artikulua. APLIKAZIO EREMUA ETA DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK**

Diruz lagunduko dira 2023ko urriaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte Hernanin abiatutako honako jarduerak:

1. Txikizkako merkataritzako jarduerak, azken bezeroarekin edo herritarrekin harreman zuzena dutenak.
2. Kale eta eremu jakin batean biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarritzat jotzen den bestelako edozein merkataritza-jarduera.
3. Pertsonen zuzendutako zerbitzuak.
4. Ostalaritzako jarduerak, baldin eta saturatutako eremu batean kokatzen ez badira.

Frankizia-jarduerak, banatzaile handien negozioak edota kate bateko kideak diren jarduerak ez dira diruz lagunduko.

Kontuan hartuko diren gastuak izango dira eskaera-orriko taulan jasotzen direnak, soilik: Lokalaren alokairua 24 hilabetez. Lokalaren gehieneko prezioa 16 €/m<sup>2</sup> izango da. Higiezin agentzien ordainsariak ez dira onartuko.

1. Lokalaren erosketaren % 5. Lokalaren gehieneko prezioa 1500 €/m<sup>2</sup> izango da. Higiezin agentzien ordainsariak ez dira onartuko.
2. Lokalean egindako obrak eta berrikuntzak, eta horiek egiteko beharrezkoak diren proiektu teknikoak.
3. Jarduera ekonomiko berria bada, hura sortzeko gastuak: ekipamenduetan egindako inbertsioak, notaritza eta gestoria gastuak, komunikazio gastuak edota prozedura izapidetzeko eta ebazteko organoak onartzen dituenak.
4. Jarduera ekonomiko berria bada, ekintzaileari edota ekintzaileei dagozkion Langile Autonomoen Araubide Berezian norbere konturako langile gisa eginiko kotizazioaren ordainketari dagozkion kuotak, edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzakoak edo nahitaezko mutualitate profesionalari dagozkionak 24 hilabetez.
5. Berriak, Hernaniko merkatarien, ostalarien eta zerbitzuen elkarteko kuotak 24 hilabetez.
6. Hernani Burujabeko partaide diren egitasmoen bazkidetze kuotak 24 hilabetez. Berrezkuratu daitezkeen kapitalak izan ezik.

Dirulaguntza hauen helburuarekin bat etorriz eta arauon koherentzia bermatze aldera, ez dira frankiziei, banaitzaile handiei edota kate bateko saltokiei egindako gastuak onartuko.

## **5. artikulua. ONURADUNEK ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Eskatzaileek onuradun izateko ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Egoitza soziala Hernanin izatea eta gehienez 5 langile izatea kontratatuata.
2. Bideragarritasun-plan bat eginda izatea, Beterri-Buruntza Mankomunitatearen doako zerbitzuaren bidez landutakoa edota honen bermea duena.
3. Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskaintzen duen urte beteko tutoretzapen-zerbitzua onartzea eta jasotzea.
4. Jarduera garatuko den lokalak jarduera sailkatuaren lizentzia izatea edo, hala badagokio, jardueraren alde aurreko jakinarazpena aurkeztu izana. (baldintza hau ofizioz egiaztatuko da).
5. Lokaleko egokitzapen obrak egin badira, dagokion udal obra baimena edo legeztatze baimena eskatu izana (baldintza hau ofizioz egiaztatuko da).
6. Hernaniko Udalarekin zerga, tasa edota isunen ordainketa egunean izatea eta zorrik ez izatea (ofizioz egiaztatuko da).
7. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egotea gehienez ere lau urteko antzinatasunarekin.
8. Foru-ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
9. Gizarte Segurantzari altan egotea eta ordainketak egunean izatea.
10. Lehendik, jarduera garatzeko moduko bestelako merkataritza lokalik jabetzan ez izatea (ofizioz egiaztatuko da).
11. Jarduera irekitzeak merkataritza lokal baten aktibazio efektiboa suposatzea edota ixtera doan jarduera bati segida ematea. Hau da, ez dira leku aldatzeak diruz lagunduko.(ofizioz egiaztatuko da).
12. Jarduera behe solairuan kokatutako merkataritza-lokala batean garatzea. Ez dira diruz lagunduko industrialdeetan kokatutako proiektuak.
13. Jarduera irekitzeko ordutegia, gutxienez, mota bereko establezimenduen batez besteko irekiera-ordutegiaren % 80 izatea (ordutegia bideragarritasun planean jasoko da).
14. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, lokalaren jabeari dagokionez, ezkontide, ondorengo edo bigarren mailarainoko odolkidetasun (hori barne) edota ahaidetasun-harremanik ez izatea. Pertsona juridikoen kasuan, erakundeko zuzendariak, jabeek edo akziodunek baldintza hori bera ere betetzea.
15. Alokairu-kontratuak, gutxienez, 12 hilabete irautea.
16. Hernaniko Udalaren hizkuntza irizpideak betetzea III. eta IV. Eranskinetan zehaztutakoaren arabera. Euskarari dagokionez, araudi hori betetzeagatik Euskara Zerbitzuak ematen duen dirulaguntzari buruz informazioa jaso ahal izango dute eskatzaileek.

Honako jarduerak edota egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak ezin izango dira onuradun izan:

1. Ausazko joko eta apustu etxeak, estankoak, loteri administrazioak, erregaien eta lubrikatzaileen txikizkako merkataritza, farmaziak, finantza entitateak, higiezin agentziak, eta merkataritza ordutegi osoan jendeari arreta emateko aurrez aurreko langilerik behar ez duten jarduera guztiak.
2. Lokal berean eta jarduera bererako, lehen mailako ahaideen titularitate aldaketa hutsaren ondorioz sortutako enpresak. Erretiroa, ezgaitasuna edota heriotza kasuetan merkataritza jarduera mantentzeko aldaketak izan ezik.
3. Dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo baten bidez honako delitu hauengatik kondenatuak izan direnak: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko erabilera, eraginen trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
4. Borondatezko lehiaketa publikoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan direnak, konkurtsoan deklaratu daudenak (hitzarmen batek bere eraginkortasuna lortu duenean izan ezik) esku-hartze judizialaren menpe daudenak edo inhabilitatuak izan direnak.
5. Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izan dutenak
6. Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez dituztenak.

## **6. artikulua. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA**

1. Lehen 12 hilabetetan, lokalaren alokairuaren % 50 diruz lagunduko da, 500 eurora arte. Azken 12 hilabetetan, berriz, alokairuaren % 40 diruz lagunduko da, 400 eurora arte. Kopurua kalkulatzeko alokairuaren zenbateko garbia hartuko da kontuan, zergak kenduta.
2. Lokala erosketan erregimenean hartuz gero, prezioaren % 5 diruz lagunduko da, 10.800 eurora arte. Kopurua kalkulatzeko alokairuaren zenbateko garbia hartuko da kontuan, zergak kenduta.

Dirulaguntza behin esleitura, eta 5. artikuluan aipatzen den bi urteko epearen baitan, onuradunak alokairu-erregimenetik erosketan erregimenera aldatu nahi badu, aldaketa hori behar bezala jakinaraziko dio Udalari. Lokala erosteko dirulaguntza esleitzeko eskatzen diren baldintza eta betekizun guztiak betez gero, erregimen aldaketa onartu eta dirulaguntzaren zenbatekoa egokituko du Udalak. Zenbateko hori doitu da eta alokairurako jasotako kopurua kenduko zaio. Onuradunak erregimen aldaketa eskatu ahal izango du dirulaguntza ebazpena jaso eta biharamunetik hasita, gehienez ere 23 hilabeteko epean. Onuradunak ez baditu betetzen lokala erosteko dirulaguntza esleitzeko eskatzen diren baldintza eta betekizun guztiak, ez da erregimen aldaketa onartuko eta lokala alokatzeko dirulaguntzaren zatia jasotzeko eskubidea ere galduko du.

3. Gainerako gastuak % 50ean diruz lagunduko dira, 2.000 €-ra arte. Gastu horiek Hernaniko zerbitzu eta produktu hornitzaileei egindakoak badira, gehienez jaso daitekeen kopurua 300 eurotan handitu ahal izango da. Era berean, onuraduna gizarte ekonomiako enpresa bada, Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen arabera, edo irabazi asmorik gabeko erakundea bada, gehienez jaso daitekeen kopurua 200 eurotan handitu ahal izango da.

## **7.- artikulua.- LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste edozein entitate publikok edo pribatuk xede bererako emandakoekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketa balego, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gainfinantzaketa dirulaguntza hauen ebazpenak jaso ondoren emango balitz, eta dirua itzultzeko betebeharrak bat baino gehiago balego, pertsona edo erakunde onuradunak, lehenik eta behin, Udalak emandako ekarpenari dagokion zati proportzionala itzuli beharko luke.

## **8.- artikulua.- PROZEDURA IZAPIDETZEKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAK.**

Merkataritza eta Turismo saila arduratuko da eskaerak izapidetzeaz.

Dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna Alkatea izango da. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da.

Alkatearen Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabete bateko epean, eman zuen organo beraren aurrean, edo bestela, Donostiako Administrazio-auzietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

## **9. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA**

Eskaerak oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak berak edo legezko ordezkariak aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Udalak prestatutako eskabide-orri normalizatuetan:

-Telematikoki, Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoen bidez.

-Aurrez aurre, Hernaniko Udaleko Herritarren Harrera Zerbitzuaren bulegoan: astelehen, asteazken eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara eta astearte eta ostegunetan 08:00etatik 18:30era.

Honako dokumentazioa aurketzu beharko dute:

1. Eskabide-orria (I. Eranskina). Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.
2. Gastuen zerrenda (II. Eranskina).
3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen inguruko aitortpena (III. Eranskina).
4. NAREN kopia eta, hala badagokio, IFKren kopia eta erakundearen eraketa-akta.
5. Bideragarritasun plana edota Beterri Buruntza Mankomunitateko ekintzailatza zerbitzuaren ziurtagiria.
6. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan egotearen ziurtagiriaren kopia.
7. Ogasunarekin egunean egoteren ziurtagiria, ofizios egiaztatze baimena ematen ez bada.
8. Gizarte Segurantzaren altan egotearen ziurtagiria eta ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
9. Hala badagokio, alokairu-kontratua.
10. Hala badagokio, salerosketa-eskiriturak eta ordainketaren egiaztapenak.
11. Kontu korrontearen titulartasun-agiria.
12. Kanpoko errotulazioaren diseinuak edota fatxadaren argazkiak.

Era berean, Udalak eskabidea baloratu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du.

### **10.artikulua.- ORDAINKETA MODUA**

Onartutako gastuen arabera, dirulaguntza bi alditan edo gehigotan ordainduko da, gehienez ere 4 zatitan.

Lehenengoa ebazpenarekin batera ordainduko da, aurreikusitako inbertsioen edota lokalaren erosketagatik dagokion % 60 eta, hala badagokio, alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten lehen 6 hilabetei dagokien zatia.

Bigarren ordainketa egingo da aurreikusitako inbertsioen edota lokalaren erosketagatik dagokion % 100 justifikatutakoan eta, hala badagokio, alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten lehen 6 hilabetei dagokien zatia justifikatutakoan.

Hirugarren ordainketa alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten bigarren 6 hilabeteak justifikatutakoan egingo da.

Laugarren eta azken ordainketa alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten hirugarren 6 hilabeteak justifikatutakoan egingo da.

Edozein arrazoiengatik hasitako jarduera etengo balitz, une horretan bertan amaituko litzateke dirulaguntza.

### **11. artikulua.- JUSTIFIKATZEKO EPEAK ETA MODUA**

Onartutako gastuen arabera, dirulaguntza epe bakarrean edo gehigotan justifikatuko da, gehienez ere 4 alditan.

Lehenengoa ebazpenaren jakinarazpena jaso eta 6 hilabeteko epean gehienez. Inbertsioen edota lokalaren erosketagatik dagokion gastuen % 100 eta, hala badagokio, alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten lehen 6 hilabetei dagokien zatia justifikatu beharko da.

Bigarren justifikazioa egingo da ebazpenaren jakinarazpena jaso eta 12 hilabeteko epean: alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten bigarren 6 hilabetei dagokien zatia justifikatu beharko da.

Hirugarren justifikazioa egingo da ebazpenaren jakinarazpena jaso eta 18 hilabeteko epean: alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten hirugarren 6 hilabetei dagokien zatia justifikatu beharko da.

Laugarren eta azken justifikazioa egingo da ebazpenaren jakinarazpena jaso eta 24 hilabeteko epean: alokairuaren, kotizazioaren ordainketa-kuoten edota bazkidetze kuoten azken 6 hilabetei dagokien zatia justifikatu beharko da.

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Gastuen zerrendarekin (II. Eranskina) bat datozen gastuen fakturak edota ordainagiriak. Ez dira onartuko gastuen zerrenda agertzen ez diren gastuak.
2. Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskaintzen duen urte beteko tutoretzapen-zerbitzua egin izanaren ziurtagiria.
3. Ogasunarekin egunean egoteren ziurtagiria, ofizioz egiaztatzeko baimena ematen ez bada.
4. Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen interesa eskatzea bidezkoa izango da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Erreglamenduan edota oinarri hauetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

**12. Artikulua.- Dirulaguntzen publizitatea.**

Dirulaguntzen publizitateari dagokionez, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua xedatutakoa.

**13. Artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.**

Pertsona onuradunak behartuta egongo dira dirulaguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratutako ziurtatze guztiak erraztera. Eta ezingo die uko egin diru laguntza eman duen organoak egin beharreko ziurtatze jarduketei.

**14. Artikulua. Ez betetzea.**

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, diru-laguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu, edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, laguntza edo diru-laguntza eman zuen organoaren eskariz, eta, hala badagokio, emandako diru-laguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

**15. Artikulua.- Adostasun-adierazpena.**

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

**16. Artikulua.- Datu pertsonalen babesa.**

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan.